BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2670

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 11koa, Ingurumeneko sailburuordearena, bigarren galdaketako aluminio-aleazioak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, Legutioko udalerrian (Araba) Fundial, S.L. enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 28an, José Ramón Madariaga Astigarraga jaunak, Fundial, S.L. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legeak xedatutakoaren arabera, Legutioko udalerrian (Araba) bigarren galdaketako aluminio-aleazioak fabrikatzeko jarduerarako. Ondorengo dokumentu teknikoak erantsi zitzaizkion eskaerari:

- «Ingurumeneko baimen bateratuko eskaera. Oinarrizko proiektua»: memoria eta eranskinak.
- «Ingurumeneko baimen bateratua. Laburpen ez-teknikoa».
- Proiektuaren eta 2006ko azaroaren 27ko Legutioko hirigintza-plangintzaren arteko bateragarritasunari buruzko hirigintza-txostenaren eskaera.

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Fundial, S.L. enpresak, besteak beste, aluminioa galdatzeko (2. galdaketa) jarduerarako 1994ko uztailaren 13ko eta propanoa gordetzeko jarduerarako 1993ko martxoaren 27ko irekitze-lizentziak zituen. Bestalde, enpresa sustatzaileak bazuen 1992ko irailaren 22ko «aluminioa mantentzeko labeko eta aluminioa urtzeko labeko gasak irteteko tximinia» fokurako atmosfera kutsatu dezakeen instalazioko ziurtagiria.

2007ko apirilaren 19an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostena eskatu zion, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Legutioko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari egin zitzaien kontsulta.

Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari 2007ko otsailaren 23an eta 2007ko urriaren 2an; espedientea 2007ko urriaren 30ean osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Fundial, S.L. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko ekainaren 16an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Legutioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

Beranduago, 2008ko abenduaren 3an Ebroko Ur Konfederazioari txostena eskatu zitzaion. Txosten hori 2009ko otsailaren 20an igorri zuten.

2009ko apirilaren 29an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Fundial, S.L. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

2009ko maiatzaren 19an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren ingurumeneko baimen bateratuaren ebazpen-proposamenari buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta –lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu edo lekuz aldatu, nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Fundial, S.L. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; ibilgu publikora isurtzeko baimena; eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu eta zuzentzeari dagozkionak. Era berean, beste administrazio eta erakunde eskudunek egindako txostenak aurkeztuko dituzte, espedientean parte hartzen dutela agerian utziz.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak ordezten du jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzkoan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22.

artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Fundial, S.L. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Legutioko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak, espedientean jasotako emaitzarekin.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako baldintzak. Bereziki Europako Batzordearen 2005eko maiatzeko Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry izeneko BREF agiriaren edukia hartu da kontuan. Horrez gain, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan aplikagarria da batez ere apirilaren 30eko 728/1998 Errege Dekretua. Honen bidez, Ontzien eta Ontzien Hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta gauzatzeko Araudia onartzen da.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla Ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailak 2009ko apirilaren 29an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Legutioko udalerriko (Arabako Lurralde Historikoa) Vitoria-Bilbao N-240 errepideko 13. km-an duen eta IFK B-01129626 zenbakia duen Fundial, S.L. enpresari bigarren galdaketako aluminio-aleazioak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematea, Ebazpen honen Bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko «metal ez-ferrosoak, aleazioa barne, eta berreskuratzeko produktuak (fintzea, moldea galdaketan) galdatzeko instalazioak, berun eta kadmiorako 4 tona edo gainerako metal guztietarako 20 tona baino gehiagoko urtze-gaitasunarekin, egun bakoitzeko» 2.5.b) kategorian dago.

Enpresa Lladie industria-poligonoan dago eta 6.468 m^2-ko azalera okupatzen du.

Fundial, S.L. enpresak 3 ekoizpen-eremu ditu: aurretiko biltegiratze-eremua, urtze-eremua, eta amaieran paletetan jarri eta biltegiratzeko eremua. Bestalde, bulegoen eraikina dago.

Urtean 13.500 tona lingote inguru ekoizten dira.

Ekoizpen-prozesuak ondorengo etapak ditu: jasotzea eta biltegiratzea, galdatzea, mantentzea, isurtzea, iragaztea, desmoldekatzea, hoztea, paletak osatzea, zumiztea eta bidalketa.

Lehengaia (aluminio-txatarra) jaso eta biltegiratu ondoren, materiala 1.400.000 Kcal/h-ko Guinea labe batean galdatzen da, gas naturala kontsumituta.

Ondoren, material galdatua mantentze-labeetara pasatzen da eta bertan aleazioa egiten da.

Aleazioa behar bezala osatu dela egiaztatu ondoren materiala isuriko da.

Metal likidoa lingoteak egiteko zintako lingote-ontzietan banatzen da. Lingoteak desmoldekatze-lerrora heltzen dira. Bertan hoztu egiten dira paletetan jarri eta zumitzez eutsi aurretik.

Pilei etiketak jarri eta biltegian jasotzen dira bezeroari igorri aurretik.

Instalazioek eta ekipoek funtzionatzeko energia elektrikoa, gas naturala eta gasolioa erabiltzen dituzte.

Fundial, S.L. enpresak ekoizpen-prozesuan sortutako atmosferako isurketak jaso eta bideratzen ditu «aluminioa mantentzeko labeko eta aluminioa urtzeko labeko gasak irteteko tximinia» foku zarratu bakar baten bitartez. Bestalde, bi konfort-galdarari lotutako bi foku zarratu daude.

Isurtze barreiatuak urtzeko labeari, ibilgailuei, eta materialak kargatu eta deskargatzeko lanei lotuak daude.

Bestalde, hiru hondakin-ur mota sortzen dira: erabilera sanitarioko urak, euri-urak eta hozte-uren purgatzeak. Ur horiek Fundial, S.L. enpresan eskura duten koipeak bereizteko eta dekantatzeko sisteman arazten dira. Ur horiek Bagueta ibaiaren erreten ekarlera husten dira isurketa-puntu bakar baten bitartez.

Jarduera garatzean hondakin arriskutsuak (aluminio-zepak, hodi fluoreszenteak, erabilitako olioak, material xurgatzaile kutsatua, ontzi kutsatuak, bereizgailuko hondakin olioduna, bateriak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak) eta hondakin ez-arriskutsuak (txatarra ferrikoa, udal-hondakinak, papera eta kartoia, ehun-ontziak, zurezko ontziak, plastikozko ontziak) sortzen dira.

Proiektuak, 2005eko maiatzeko BREFean «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» adierazitakoaren arabera teknika erabilgarri onenak izan daitezkeen ondorengo neurriak gehitzen ditu, besteak beste: metal-silizioa urtzaile gisa erabiltzea, zepatako aluminioa berreskuratzea, isurketak xurgatzea isurketa-puntu guztietan.

Bigarrena.– Legutioko udalerrian Fundial, S.L. enpresak sustatutako bigarren galdaketako aluminio-aleazioak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintza eta betebeharrak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Fundial, S.L. enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Fundial, S.L. enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Fundial, S.L. enpresaren instalazioak foku hau du, indarrean den araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koodernatuak	
					Taldea	X	Y
1	1001001-01	Aluminioa mantentzeko labeko eta aluminioa urtzeko labeko gasak irteteko tximinia	8	0,58	B	529.880	4.756.023

Bestalde, honako hauek sortutako noizean behingo isurtze barreiatuak gertatzen dira:

● Urtzeko labeak.

● Barruko ibilgailuek, eta materiala kargatzeak eta deskargatzeak eragindakoek. Biak erregimen ez-jarraituan sortzen dira.

● Zepak manipulatzeak, gordetzeak eta tratatzeak.

● Silotako biltegiratze zarratuek.

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Sufre dioxidoa (SO_2)	130 mg/Nm^3
	Kloroa (Cl-a HCl eta Cl_2 arteko batura gisa)	30 mg/Nm^3

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

c) Ezarritako isurtzeko muga-balioak lortzen ez badira, beharrezko neurri zuzentzaileak hartu beharko dira (arazteko sistemak instalatzea, eta abar) atmosferara egiten diren isurtzeen balio horiek betetzea ziurtatzeko.

B.1.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak 1976ko urriaren 18an emandako Agindua (Industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurre hartu eta hori zuzentzeari buruzkoa) bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-puntuaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurtze barreiatuak murrizteko, isurtzeak biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztien mantentze-lan zuzenak egingo dira. Gainera, instalazioak egunero eta astero garbitu, kanpoko ateak itxi, zepak manipulatu, gorde eta tratatu, eta labeak tarteka egingo dituen isurtze barreiatuak kontrolatzeko neurriak hartu, orokorrean nabea itxi eta beste hainbat gauza egingo dituzte. Aipatutako informazio guztia agiri honen D.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.2.– Ibai-ibilgura isuriak egiteko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: fabrikako langileen komunak, aldez aurretik deskutsatutako aluminio-txatarra gordetzeko azaleratik datozen jariatzeko euri-urak, eta hozte-purgatzeetatik datozen urak.

Jarduera-taldea: 2.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-27.54.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Erabilera sanitarioko urak	Fabrikako langileen komunak	Baguetas ibaiko erreten ekarlea	Zadorra ibaiaren arroa	I	X: 529.769 Y: 4.756.012
	Kutsatuak egon daitezkeen euri-urak	Aldez aurretik deskutsatutako aluminio-txatarra gordetzeko azaleratik datozen jariatzeko euri-urak				
	Industria-urak	Hozte-zirkuitua purgatzea				

B.2.2.– Gehienez isuri daitezkeen emari eta bolumenak.

Orduko puntako emaria	0,8 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	20 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	4.800 m^3/urte

Hozte-zirkuituko purgatzeak 50 l/egun kalkulatu dituzte, eta purgatze horien ondorioz, berriz, urtero 11,1 m^3-ko emaria kalkulatu dute.

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgurako isurien ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira bakarrik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
Gai esekiak	<35 mg/l
Oxigeno-eskaera biokimikoa (DBO_5)	<25 mg/l
Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	<125 mg/l
Olioak eta koipeak	<10 mg/l
Detergenteak	<2 mg/l
Aluminioa	<1 mg/l
Hondar-kloroa	0,3 mg/l

Tenperatura: ubidearen tenperatura ezin da 1,5 ºC baino gehiago areagotu.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen horrek ez du baldintza honetan berariaz adierazitakoak ez diren beste substantzien isurketa onartzen, batez ere maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren substantzia arriskutsuak. Errege Dekretu horren bidez, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VIII. tituluak garatzen dituen Jabari Publikoko Urguneen Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da.

Hozte-zirkuituak husteko arau egokien bidez errespetatu eta bermatu behar den protokoloa ondorengoa izango da:

1.– Husteko gutxieneko denbora: 72 ordu.

2.– Hondar-kloro askea erreaktiboak gehituz edo beharrezko denboran pausagune bidez, etab. ezabatzea, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

3.– Putzuaren hondoan metatutako lohiak kendu eta hustea, lohi horiek isurtzea derrigorrez saihestu behar baita.

B.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Biltegiratze-azaleratik datozen jariatzeko euri-urentzako sistema araztailea honako atal hauek osatzen dute: arbastatzea, ondoren desondartzea, dekantagailua eta ondorengo koipeen bereizketa. Beranduago komunetako urak gehituko dira 15 m^3-ko biltegian dekantatzeko, 20 egun baino gehiagoko atxikipen-aldiarekin. Beranduago koipeak bereiziko dira ibilgura isuri aurretik.

Gehienez 5 urteko epean, saneamendu-kolektoreetan beharrezkoak ikusten diren obrak eta/edo aldaketak egingo dituzte, euri-urak eta ur beltzak bereizteko.

Etorkizunean isurketa hau udal-izaera edo izaera publikoa duen saneamenduko sare orokor bati lotzea bideragarria baldin bada, sare horri konektatu beharko zaio.

Arazketa osagarria ere eskatzeko aukera izango da, ingurune hartzailean gorabehera negatiboren bat antzemanez gero.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Fundial, S.L. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Uren isurketaren emaria neurtzeko sistema bat eduki behar da, hartara, emariari dagozkion balio instantaneoa eta metatua edozein unetan jakiteko.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da azken isurketarako; kutxeta horrek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izan beharko ditu. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

B.2.5.– Isurien Kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien Kontrol-kanona = $V \times P_u$.

$P_u = P_o \times Km$.

$Km = K_2 \times K_3 \times K_4$.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_o = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

Km = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

V: Bolumena P_o: Hondakin-ura: Industriala K_2: 1. mota K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria-eremua: I	V = 4.800 m^3/urte P_o = 0,03005 €/m K_2 = 1,0 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

Km = 1× 0,5 × 1,25 = 0,625.

P_u = 0,03005 × 0,625 = 0,01878 euro/m^3.

Isurien kontrol-kanona = 4.800 × 0,01878 = 90,15 euro/urte.

Ebroko Ur Konfederazioak isurien kontrol-kanonaren likidazioa egin eta jakinaraziko du dagokion urteko ekitaldia bukatu orduko.

Isurien kontrol-kanona ez da lotuta egongo saneamendu- eta arazte-lanak finantzatzeko autonomia-erkidegoek edo udalek ezar ditzaketen kanonekin edo zergekin.

Zenbateko hori ez da aldatuko isurtzeko baimena edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, titularrari urte horri dagokion likidazioa bidaliko zaio.

B.3.– Plantan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Legutioko Udalean.

B.3.1.– Hondakin Arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

● 1. prozesua: «Galdaketa».

○ 1. hondakina: «Aluminio zepak».

– Identifikazioa: B01129626 / 017167 /1/1.

– Hondakinaren kodea: Q8/R4/S22/C24/H12/A222/B3236.

– EHZ: 100304.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.500.000 kg.

○ 2. hondakina: «Bereizgailuaren hondakin olioduna».

– Identifikazioa: B01129626 / 017167 /1/2.

– Hondakinaren kodea: Q8/R13/L9/C51/H5/A222/B3236.

– EHZ: 130507.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.000 kg.

● 2. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

Prozesu honek zenbait azpiprozesu biltzen ditu. Azpiprozesu horietan makineria eta instalazioak mantentzeko eta garbitzeko lanetako hondakin arriskutsuak eta kontsumitutako produktuen ontziak sortzen dira.

○ 1. hondakina: «Hodi fluoreszenteak».

– Identifikazioa: F48023766/4805251/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q14/R13/S40/C16/H14/A222/B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 kg.

○ 2. hondakina: «Olio erabiliak».

– Identifikazioa: F48023766/4805251/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q7/R13/L8/C51/H5/A222/B0019.

– EHZ: 130113.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kg.

○ 3. hondakina: «Material xurgatzailea».

– Identifikazioa: F48023766/4805251/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q5/D15/S34/C51/H5/A222/B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 50 kg.

○ 4. hondakina: «Kutsatutako metalezko ontziak».

– Identifikazioa: F48023766/4805251/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q5/R13/S36/C51/H5/A222/B0019.

– EHZ: 150110.

○ 5. hondakina: «Kutsatutako plastikozko ontziak».

– Identifikazioa: F48023766/4805251/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q5/R13/S36/C51/H5/A222/B0019.

– EHZ: 150110.

○ 6. hondakina: «Bateriak».

– Identifikazioa: F48023766/4805251/2/6.

– Hondakinaren kodea: Q6/R13/S37/C18-23/H8/A222/B3205.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: 20 kg.

○ 7. hondakina: «Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak».

– Identifikazioa: F48023766/4805251/2/7.

– Hondakinaren kodea: Q14/R4/L/P/S39/C26/H14/A222/B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: 20 kg.

«Kutsatutako metalezko ontziak» eta «kutsatutako plastikozko ontziak» gisa sailkatutako zenbat hondakin sortzen den urtean adierazi beharko da.

Era berean, hondakin bakoitza kudeatu eta gordetzeko moduak adierazi beharko dira.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Fundial, S.L. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Fundial, S.L. enpresak industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

j) Fundial, S.L. enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen 2006ko otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Fundial, S.L. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

l) Fundial, S.L. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

n) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarrietako bat bete dadin, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Fundial, S.L. enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

o) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), l) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

p) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Fundial, S.L. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun– eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (kg/urtea)
Plastikozko ontziak	150112	Prozesua	30
Zurezko ontziak	150103	Prozesua	500
Ehun-ontziak	150109	Prozesua	75
Papera eta kartoia	200101	Orokorra	300
Burdina txatarra	200140	Mantentzea / prozesua	1.000 (aldakorra)
Udal-hondakinak	200301	Orokorra	1.000

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu bati.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Fundial, S.L. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo horien agiri ofizial baliokideak –beharrezkoak direnean–, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c), d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistema erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Fundial, S.L. enpresak honako zereginak izango ditu: instalazioak mantendu eta ikuskatu egoera onean mantentzeko, langileak prestatu, instalazioaren kontsumoak murriztu eta zoladura egoera onean zaindu.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Fundial, S.L. enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	1001001-01	Aluminioa mantentzeko labeko eta aluminioa urtzeko labeko gasak irteteko tximinia	Guztizko partikulak	Urtekoa
			Kloroa (Cl-a HCl eta Cl_2 arteko batura gisa)	
			Karbono Organiko Guztizkoa (KOG)	
			Sufre dioxidoa (SO_2)	
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Nitrogeno oxidoak (NO_X)	
			Dioxinak eta furanoak (PKDD eta PKDF)	Neurketa lehen urtean

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «Kontrol-erakunde baimenduen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Edonola ere, botatako gai poluitzaileen kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzak ezarritako eskakizun tekniko guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Parametroen neurketak ez izatekotan edo parametro horiek ebazpen honetan neurketak egiteko ezarritako maiztasuna baina zaharragoak badira, neurketak berriz egin beharko dira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

d) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta 1976ko urriaren 18ko Aginduak, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio hori eguneratuta egongo da, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Parametroak	Maiztasuna
Urteko gehienezko bolumena	Urtero
Eguneko bolumena	Egunero
pH	Hiru hilero
Gai esekiak	Hiru hilero
Oxigeno-eskaera biokimikoa (DBO_5)	Hiru hilero
Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	Hiru hilero
Olioak eta koipeak	Hiru hilero
Detergenteak	Hiru hilero
Aluminioa	Hiru hilero
Hondar-kloroa	Hiru hilero

Baimenaren titularrak kolektoreak eta arazketa-instalazioak funtzionamendu-egoera egokian mantendu beharko ditu. Horrela, betebehar horietarako pertsona bat izendatu beharko du eta instalazioak zaindu eta funtzionatzeko arau zorrotzak eta beharrezko neurriak eman beharko dizkio.

Baimenaren titularrak arazketa-instalazioen funtzionamendua eta isurketen kalitatea eta kantitatea erregularki kontrolatuko ditu. Informazio hau Ingurumen Sailburuordetzak eta Ebroko Ur Konfederazioak azter dezaten eskuragarri izan beharko dute. Erakunde horiek beharrezko egiaztapen eta analisiak egin ahal izango dituzte. Gutxienez, isurketaren mugen baldintzan zehaztutako parametroak aztertuko dituzte adierazitako maiztasunarekin.

Arazketa-instalazioetako efluenteen irteera bakoitzean kutxeta bat jarriko da eta bertan egingo da isurketaren laginketa. Horrenbestez, isurketaren laginak hartzeko eta emaria neurtzeko baldintza egokiak beteko ditu kutxetak. Kanpotik sartzeko aukera erraztuko da, jarduera garatzen den instalaziora sartzeko beharrik izan gabe.

Horretaz aparte, Arroko Erakundeak egokiak iruditzen zaizkion azterketa eta ikuskapen guztiak egin ahal izango ditu isurketaren ezaugarriak egiaztatzeko eta, behar izanez gero, kontrol horiek balio dutela kontrastatzeko.

Lan horiek zuzenean edo entitate laguntzaileen bitartez egin ahal izango dituzte.

Ur Konfederaziak une oro ikuskatu eta zainduko ditu obrak eta instalazioak. Kontzeptu horien ondorioz eman beharko diren ordainsariak eta gastuak onuradunak ordainduko ditu, indarrean dauden xedapenak kontuan hartuta. Arazketako instalazioek behar bezala funtzionatzen ez badute, arazketa behar bezala gauzatzeko behar diren zuzenketak egin beharko dituzte.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko ditu (Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduko 255. artikulua) eta aurretik aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimeneko baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.2.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Titularrak txosten bat bidaliko dio aldiro Ebroko Ur Konfederazioari, eta honako datu hauek barne hartuko ditu txosten horrek:

● Hiru hilero: isurketaren adierazpen analitikoa, emariari eta efluentearen konposizioari dagokienez (hiruhilekoan egindako efluenteen kontrol-analisi guztiak barne egongo dira).

● Urtero: Tratamendu-sistemaren ustiapeneko gorabeheren eta isurketaren hobekuntzan lortutako emaitzen adierazpena.

f) Lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuen isurketak daudela dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

g) Ingurumeneko baimen bateratua berritzeko dagokion legerian aurreikusitako denborarekin, bertako titularrak Eusko Jaurlaritzari bidaliko dio hondakin-uren isurketaren ezaugarri eguneratuen azterlan teknikoa eta, behar izanez gero, neurri zuzentzaileak hobetzeko proposamena ere.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Interpretazioa egiteko adierazleak	Unitatea
Materialen kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● Txatarrak	t	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● Txatarrak	t
Energia kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa Elektrizitatearen kontsumoa Gasolio-kontsumoa	m^3 Kwh m^3	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/Kwh (%)
	1.		Energia espezifikoa (kontsumitutako energia/produktua)	Kwh/t produktorea
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3	Ur-kontsumoa	m^3
Uretara egindako isurketak	Isurketa industrialak	m^3	Isurketa industrialak	m^3
Isurtze atmosferikoak	Partikula solidoen isurtzea (max, min eta batez beste, lagin-kop.)	mg/Nm^3	Partikula solidoen isurtzea	mg/Nm^3
			Partikula solidoen guztizko isurtzeak/Ekoizpena	kg/t produktu berreskuratua
	HCl isurtzeak (gutxienekoa, gehienezkoa eta batez bestekoa, laginketa-kopurua)	mg/Nm^3	HCl isurtzeak	mg/Nm^3
	HCl isurtzeak	kg	HCl isurtzeak	kg
			HCl isurtzeak/Ekoizpena	kg/t produktu berreskuratua
			HCl isurtzeak/Ekoizpena	kg/t produktu berreskuratua
	KOG isurketak (gutxienekoa, gehienezkoa eta batez bestekoa, laginketa-kopurua)	mg/Nm^3	KOG isurketak	mg/Nm^3
	KOG isurketak	kg	KOG isurketak	kg
			KOG isurketak/Ekoizpena	Kwh/t produktu berreskuratua
Hondakinak	Sortutako Hondakin Arriskutsuen guztizko kopurua	t	Sortutako Hondakin Arriskutsuen guztizko kopurua	t
	1.		Sortutako hondakin arriskutsuen kantitatea guztira/metal likidoa	t/t
	Hondakin arriskutsu baliotuak	t	Hondakin arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin arriskutsuak	t/t (%)
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	t/t (%)
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	t	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	t
	1.		Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua/metal likidoa	t/t
	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak	t	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak (gainerako osagaiak, …)	t/t (%)
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/ urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua	Kopurua/urte
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/ez Zein/ urtea	Ekoscan/urte eta/edo ISO14001/urte eta/edo EMAS/ Urte	Bai/ez Zein/ urtea

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamena ebazpen honen C.6 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta inguruneren kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isurketaren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Ingurumen Sailburuordetzara.

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako mantentze-lanei dagokienez, botako diren kutsagarrien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27.54 epigrafea «Beste burdinarik gabeko metalen galdaketa»), eta lurzoruan kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Fundial, S.L. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako

prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako dokumentazioan egindako proposamenean ez-ohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazkaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, zorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Hauts-produktuak gordetzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

g) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

i) Nabeen barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

j) Hidrokarburoen bereizgailuak aldian-aldian ikuskatuko dira, hondakinak pilatu ez daitezen; dekantagailuetan eta bereizgailuetan metatutako lohiak eta flotatzaileak aldian-aldian kendu behar dira. Hondakin horiek baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

k) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

l) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

m) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

n) Lohiak tratatzeko instalazioetako xukatutako ura arazteko instalazioaren sarrerara eramango da, han tratatzeko.

o) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

Isurketaren kasuan larrialdi-kasutarako neurri eta jarduteko plan espezifikoa izan beharko du titularrak.

Halako planik ez badu, titularrak larrialdi-kasutako arau orokorrak jarraituko ditu.

Ustekabeko isurketa edo hondakin-urak arazteko instalaziotan edozein irregulartasun Ebroko Ur Konfederazioari jakinaraziko zaio berehala, hasieran fax bidez edo telefono bidez, eta idatzita ahalik eta denbora laburrenean. Aldi berean, akats hori zuzentzeko behar diren neurriak ahal den epe laburrenean hartuko dituzte.

p) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

● Enpresa espezializatu batek egindako araztegiaren mantentze-lanen protokolo edo eskuliburu bat eduki behar da nahitaez, eta bertan, hauek finkatuko dira: ekipo elektromekanikoen mantentze-lanak, arbastuen garbiketak, gehiegizko solido eta lohien purgatzeak, eta abar.

● Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

q) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

r) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

● Gertakari-mota.

● Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.

● Iraupena.

● Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.

● Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.

● Eragindako kalteen balioespena.

● Hartutako neurri zuzentzaileak.

● Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.

● Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

s) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Fundial, S.L. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien E-PRTR-Euskadi Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.2.4 (Konpresoreetatik olioak ezabatzeko sistema, kontroleko kutxeta eta emaria neurtzeko sistema ezartzearen justifikazioa); B.3.1; (Plastikozko ontzi kutsatuz eta metalezko ontzi kutsatuz urtean sortutako kantitatea, hondakin bakoitza kudeatzeko eta gordetzeko modua); B.3.1.e) (Sortutako hondakin arriskutsuak onartzeko agiriak); B.3.1.m) (Hondakin arriskutsuen erregistro-eredua); B.3.2.c) eta e) (Sortutako hondakin ez-arriskutsuak onartzeko agiriak), (Hondakin ez-arriskutsuen erregistro-eredua); C.1 (Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea, hala badagokio); C.1.d) (Atmosferara egiten diren isuriak erregistratzeko eredua); C.4 (Neurketen proposamena); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Botako diren kutsagarrien eta sortuko diren hondakinen balioespena); D.3.a), d), f), g), h), o) p) eta s) (Isurketan larrialdi-plana), (prebentzioko mantentze-lanetarako eskuliburua), (mantentze-lanetako erregistroa), (biltegiratze-ziurtagirien egiaztapena), (larrialdietarako materialen zerrenda), (kubetak husteko protokoloa), (materialen zerrenda, mantentze-eragiketen erregistroa) eta (suteen aurkako babesei buruzko ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bostgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Ingurumeneko baimen bateratu honetan jasotako ibilgurako isurketen baldintzei dagokienez, Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 261. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoak, eta baldintza horiek hainbat aldiz ez betetzea berrikusi, bertan behera utzi eta indargabetzeko kausa izango dira.

Seigarrena.– Fundial, S.L. enpresak Ebazpen honen xede den bigarren galdaketako aluminio-aleazioak fabrikatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Fundial, S.L. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Fundial, S.L. enpresari, Legutioko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 11.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.